

EUSKARA EUROPAKO HIZKUNTZA

Europa mailan euskara aintzat hartzeko adierazpena.

Kultura Sailak proposaturik, Gobernu Batzordeak Europa mailan euskara aintzat hartzeko adierazpena onartu du.

Euskara Europako hizkuntza dugu, Euskadi deitzen diogun Europar Batasunaren eremu honetan berezko hizkuntza eta hizkuntza ofiziala dugu eta horrela azaldu beharko luke Europako Konstituzioan.

Espainiako Erresuma Europar Batasunean txertatu zenean Estatu eleanitza sartu zen Batasunean, lurralde osorako hizkuntza ofizial bat duena eta beste hiru hizkuntza ofizial lurralde eremu desberdinetan. Espainiako Konstituzioak onartzen duen izaera eleanitz hori ez zen bere horretan Europara eraman eta horren ondorioz euskarak, katalanak eta galizierak ez dute inongo izaerarik Europako Erakundeetan.

Ezinbestekoa da Europak aitortzea hiru hizkuntza hauen ofizialtasuna eta aitortza hori ezin da mugatu lege testuren baten itzulpen hutsera.

Jakin badakigu euskararen erronkak etxean ditugula, gure hizkuntzaren geroa Euskal Herrian jokatu eta irabazi behar dugula eta hori gure esku dago. Euskara guztiona da eta guztion beharra du. Baina horrekin batera, euskarak izaera ofiziala behar du Estatuan eta izaera hori zor zaio bere baitan hartzen gaituen Europar Batasunean ere.

Euskara, Europako kultura ondarearen eta aberastasun eta aniztasunaren osagarri izanik, Europar Batasunako erakundeek ezin dute saihestu eta bere horretan azaldu behar du Europako Konstituzioan. Are gehiago, euskarak, katalanak eta galizierak ofizialak diren hainbat hizkuntzak baino hiztun gehiago dituztenean.

Europar Batasunean, Espainiar Estatuko hizkuntzen ofizialtasunaren eztabaidan itxuretan erortzeko arriskua dago, azalean euskara, katalana eta galiziera legeztatzearen alde agertu, ondoren ele ofizialak horietan hitz egiten duten herritarrei huts egiteko.

Honek guztiak ezin hobeto adierazten du Euskadik Europar Batasuneko Erakundeetan zuzenean parte hartzeko duen beharra. Inork ez du guk bezain ondo defendituko euskarak berezkoa duen eremuan behar duen presentzia eta aitortza.

2004-5-18(e)ko Kontseilua